

Biblioteca Municipal de Ermua / Ermuko Udal Liburutegia

LOVE OF THE COMMON PEOPLE

Ezizena: Dolores Ibaruri.

Nerbioi ibaiaren ezker ibarrean, XIX. mendeak hiru laurdenak baino gehiago jada ahituta zituela, jaio zen Maria Eusebia, Sestaoko langile familia bateko alabarik zaharrena. Lagunartean Eusebi, burkideentzat, ostera, Kartsu, halaxe bataiatu baitzuten bere izaera kuraitsuagatik. Burkide, bera izan zelako emakume langileen borrokan Bizkaiko aitzindari nagusia, gaur bere izena ia guztiz ahaztuta dagoen arren.

Oso gazte hasi zen beharrea, jauntxoan neskame. Horretarako Bilboraino trenez joan eta etorri ibiltzen zen egunero, beste hainbat beharginekin batera bagoi zikinetan pilatuta. Goñi de Ojeda sendiaren jauregian umeak zaindu, gelak txukundu, soinekoak josi eta sukaldatu ziren bere eginkizun nagusiak. Ez zuen atsedenerako unerik, andreak beti jartzen baitzizkion zeregin berriak aurrekoak amaitu bezain pronto. Trapuak garbitu behar ez zituenean lorategia urreztea zen nagusiaren apeta. Azkar konturatu zen esklabu moderno bat besterik ez zela, bere sendiari jaten emateko aitzakiarekin lanaren girgiluak lepotik eskegita zeramatzana. Ez da harritzekoa, hortaz, bere larruan bizitakoak eta herrian errazki atzeman zitekeen miseriak sindikatura lehendabizi eta alderdi komunistara ondoren bultzatu izana. Garaian bogan zebiltzan intelektual marxisten eraginez batipat bereganatu zuen emakume langilearen kontzientzia irmoa Eusebik eta, arestian esan bezala, bere goitizena erruz zabaldu zen ezkerralde osoan.

Lanak, hala ere, eman zion pozik, jauregian ezagutu baitzuen Ander, gerora senar bihurtuko zena. Ander leioaztar eta, Eusebi legez, langile jaio zen. Emakumearen pasio militanteak txunditzen bazuen ere, gizonak ez zuen inoiz Eusebik adina konpromezu erakutsi. Horrek, Anderrek iraultzarekiko erakusten zuen axolagabetasunak alegia, maiz sutzen zuen Eusebi. Dena den, eztabaidak gorabehera, bikote harreman estua zuten. Maitasuna gailentzen zen ororen gainetik.

Goñi de Ojedatarrek domeka arratsaldeak libre ematen zizkioten zerbitzuari eta bikote gazteak ordu apur horiek baliatzen zituen elkarrekin egoteko eta musuak nahierara trukatzeko, izkutuan beti ere. Topo egiteko bazuten lanik, ordea. Izan ere, Leioa eta Sestao banatzen zituen itsasadarra zeharkatzea saihestezina suertatzen zitzairen. Artean ez zegoen zubirik Portugaleten, autorik ez zen ibiltzen errepedetan eta txalupariak igandea libre hartzeko ohitura zuten. Bestelako aukerarik ezean, adimena baliatu zuen bikoteak. Batzuetan, kaian zeuden txalupak deslotu, erreskadan jarri eta txalupa batetik bestera salto eginez ailegatzen ziren kontrako ertzera. Eguraldia alde zutenean, ontziren bat deskuiduan hartu eta arraunean joaten ziren Ereagako hondartzaraino. Txalupen jabeak bikotearen jukutiaz ohartu zirenean bide horiek baztertu beharrean ikusi zuten euren burua. Noizbait, marea jeisterakoan, Eusebik igerian burutu zituen Sestaotik Leioarako metroak, Ander bestaldean maindire garbi batekin itxoiten zelarik.

Aukerak agortu ahala, Eusebik argi atzeman zuen guzti hura ez zela kasualitate hutsa. Bi ibarrak lotzeko ganorazko zerbitzu publiko eza burgesiaren azpijoko bat besterik ez zen, ezkerraldeko langile mundua eta eskuinaldeko burges giro tradizionala elkar ikutu ez zitezten. Berariazko amarru sotil hura salatzeke asmoz Eusebik oihartzun handia erdietsiko zuen kanpaina politikoari ekin zion. Afixak, paskinak eta mitin bakanen bat nahikoa izan ziren bere kezka Bilbo Handian barrena zabaltzeko. Nerbioiaren bi ertzak komunikatzeko azpiegituren beharra laster batean egin zuen bere iritziz publikoak. Horrek bultzatu zituen Getxo aldeko kapitalista handiak Eusebiren berbak aintzat hartzera. Hainbat bilera sekretuen ondoren, ezkerraldea eta eskuinaldea gerturatzeak klase borroka lausotu zezakeela ondorioztatu zuten bulego garrantzitsuenetan. Ideia hori ardatz, adostu beharrekoak adostu eta zubi handia eraikitzeke planak lau haizetara zabaltu zituzten enpresa-jabeek. Gizarteak begi onez hartu zuen proiektua, baita dirudunek ere. Hortan izan zuen zeresanik Areetako apaizak, zubiaren izaera kristaua

azpimarratzera heldu baitzen, behartsuekiko hurbiltasunaren ikur bihurtuko zelakoan. Eusebi eta Ander, nola ez, pozez zorutzen utzi zituen albisteak; langile gazteen maitasuna ahalbidetzeak zekarren pozoiaz ohartzeke.

Zubiaren eraikuntzak luze eman zuen, bospasei urte inguru. Bikotearen maitasuna, ordea, geldieztina zen. Zubia estreinatzerako Eusebik eta Anderrek bizimodu xumea zeraman bikote ezkonberri bat gehiago osatzen zuten, beste bat hainbaten artean, hartara zubiaren behar gutxi zeukana, Anderren sendiaren baserria hartua baitzuten bizileku partekatatu moduan. Logela txikia egokitu bazitzairen ere, pozik bizi ziren elkarrekin egon zitezkeen neurrian.

Mende berriarekin batera, politika handiaren aldaketak elkarrekin jarraitu zituzten. Aldaketok, dena den, ez zuten beren egunerokoa gehiegi aldatu, etxera jatekoa ekartzearen premiak bere horretan zirauelako. Eusebi, gogoz kontra, Goni de Ojedatarrak ahaztu eta baserrian hasi zen lanean, Anderri utziz diru-sarrereren erantzunkizuna. Haurdunaldirik gabe, lasaitasunak nola edo hala iraun zuen harik eta 1936an gerra zibila piztu zen arte.

Altzamenduaren aurrean, aspaldi atzean utzitako lan politikoari berriro heldu eta intendentzia nahiz propaganda lanetan nabarmendu zen Eusebi. Alta, bere eraginez garatu zuen batipat Anderrek langile kontzientzia, nahiz eta azken momentuan, familia osoaren pausuak jarraituz, Eusko Gudarostean izena eman.

Jakina denez, tropa abertzaleen ibilbidea laburra izan zen. Anderrentzat lau eta bateko emaitzaz itxi egin zen guda zibila. Fusila lortu bezain laster, klase-kontzientziaren eldarnio batean eta eztabaida sutsu baten ondotik, ustez burkidea izan behar zuen jauntxo jeltzale bat eraman zuen aurretik. Ondoren, Larrabetzu aldean galdutako soldadu alemana. Gutxira, faxista espainiar bati egokitu zitzaion herioaren zaporea

dastatzea, Gaztelumendi magalean suertatu ere. Azkenik, pistola probatzeko aitzakian, katu baten bizia moztu zuen, jarraian sukaldatzeko; hain dira latzak gerrak. 1937.eko urte amaieran Andrés izendatu eta giltzapetu zuten. Eguzki izpiek berriz agurtu zutenerako beranduegi zen. Ofizial frankistek areka batean deskantsu hartzera behartu zuten, kaskezurrean tiro bakar bat eman ostean.

Hiru hilabete igaro behar izan ziren Leioako baserrira albistea hel zedin.

Eusebi ez zen inoiz berdina izan. Topikoa eman dezake baina, zinez, hala izan zen. Ez da bere goibeltasun kronikoa hobeto definitu dezakeen esaldirik. Frankoren tropek Bartzelona hartu zutenerako esperantza nimiñoena ere galdua zuen Eusebik. Erbesteratzeko aukera azkenengoz eskeini ziotenean ezezkoa eman eta baserriko ganberan izkutatu zen. Inguruan desagertutzat edo hiltzat emanda, egunak asper-asper eginda ematen zituen, egiteko handirik gabe. Bakardadeak itota bizi zen, inorekin apenas hitzik trukatzeko. Kanpotik helarazten zizkioten berriek ere ezinezkoa zuten bere animoa altxatzea, Frankoren ahalegin garbitzaileak ez baitzuen etenik izan gerraosteko lehenengo urte horietan.

Itzalpeko sufrimendu isil hura jasanezina zitzaion. Bere buruari ezarritako espetxeratzearekin bukatzeko asmotan 1942ko gau ilunena hautatu eta kalera irten zen, beltzez jantzita. Erreka lagun, Leioa eta Areeta arteko kilometroak oinez egin zituen. Guda zibilaren ondoren eraberritua izan zen Bizkaia Zubira heltzerakoan, inguruan gauzain eta lekukorik ez zela, dorrea igotzeari ekin zion. Behin tontorra erdietsita, goiko pasabidetik lauhankatan ibiltzen hasi zen, kontrako ertzera bidean. Zubiaren erdigunera iristean, Portugalete eta Areeta arteko mugan, pixkanaka zutitu eta besoak zabaldu

zituen. Itsasoari so egin zion instant eternal batek irauten duenaz eta, gorputza emeki balantzatzuz, profil beltzak 61 metroko erorketa askea marraztu zuen.

Ibaia zeharo gorritu egin zela zabaldu zen kaleetan; maitasunaren, odolaren eta iraultzaren gorriaz. Gezurra zen, ordea. Eusebiren gorpua ur gainean geratu zen apur batean, arropak puztuta, buruzbe, azkenik hondoratu arte.

Prentsa frankistak gertakaria izkutatu nahi izan zuen. Zubitik behera bultzatutako andraren maite mina eta politika nahastea onartezina zen. Alta, zauriak ixteko eta bakea ezartzeko hobe zuten gertatutakoaz xehetasun gutxi aireratzea. Hori dela eta, komunikabideek bizpahiru lerro eskas baino ez zizkioten eskeini jazoerari. Kanean, ostera, jendea zubiari izena aldatzeari lotu zitzaion naturaltasunez. Horrela, “Eusebi Zubia”, “Zubi Gorria”, “Maitasunaren Zubia”, “Kartsu Zubia” edota “Amodioaren Zubia” izen berriak jaso zituen. Gobernadoreak, bat-bateko herri ekimenaz jakitun, kontraerasora jo eta, zubia despolitizatze aldera, berau Zubi Esekia edo Portuko Zubia herrikoiki izendatzeko kanpaina abiarazi zuen altxamenduaren babesle izandakoen laguntzaz.

Bien bitartean, ahoz-ahokoaren indarrez, erbesteko Euskaltzaindiaraino heldu zen afera. Bertan euskaltzainek eztabaida sutsuak izan zituzten, “Maitasunaren Zubia” edo “Amodioaren Zubia” zein baino zein aproposagoa ote zen eztabaidatzen. Bihotz oneko euskal sentiberatasunaren adierazle, euskaraz maite minari bi modutan esaten zitzaiola deliberatu zuten atzenean. Hortaz, bi izendapenak onartu zituen Euskaltzaindiak, “Maitasunaren Zubia” hobetsiz edonola ere.

Gobernadorearen ekimenak nolabaiteko arrakasta izanagatik, herriak ez zuen halere Eusebiri jazotakoa ahaztu eta bere istorioa ahozko literaturari esker oroitua izango zen belaunaldiz belaunaldi. Hainbat bertso eta kantu herrikoi konposatu ziren bere omenez,

Euskal Herriko mugak zeharkatzera iritsiz. Modu horretan Eusebiren bizitza John Hurley abeslari irlandarraren belarrietara heldu eta honek, bizkaitarraren biografia oinarri hartuta, "Love of the common people" folk balada osatu zuen haren omenez, 1970.eko "Sings about people" LPan agertuko zena. Abestia *hit* bat bilakatu zen laster batean eta gerora hainbat taldek nahiz bakarlarik, Nicky Thomas edo Stiff Little Fingers kasu, beren erara bertsionatuko zuten. Gazteri nazionala babesteko Francoren zentsoreek abestiaren aldaera guztiak debekatu zituzten, diska horien inportazioak galaraziz. Hala eta guztiz ere, kantaren hainbat bertsio desberdin klandestinoki heldu ziren hegoaldera, itsasuntziz zein Lapurdiko pasabideetatik, bertoko euskaldun eta ezkertiarren gozamenerako, borroka antifrankistaren oihartzun internazionalaz harro. Alderdiaren ondare biltegian badago hautsak jandako kopia bat. Nicky Thomasen reggae bertsioa litzateke, Trojan diskoetxeko zazpi hazbeteko single batean agertzen dena.

Zubiak ez dio inoiz itzuli Eusebiren memoriari honek eman zion proiektio kulturala, ezta beharrik ere. Eusebik ez zukeen onartuko bere izena plaka batean izkiriatuta ikusterik, turista burgesentzat apaingarri.

Gorde bezatela, beraz, orri hauek iraultzailearen oroimena, herri honen etorkizunaren argizari.

Euskal Herriko Alderdi Komunistaren Kazetaren Kultura Gehigarria,

2.118. urteko udazkena.